

# Yzmita

Lurretik hiribildura  
(1402-1615)



M<sup>a</sup> Rosa Ayerbe Iribar



URNIETA,  
LURRETIK HIRIBILDURA (1402-1615)

**Argitaratzailea:** Urnietako Udala.



*Urnietako*  
udala

**Testuak:** M<sup>a</sup> Rosa Ayerbe Iribar.

**Itzulpena eta moldaketa:** Nagore Irazustabarrena Uranga.

**Argazkiak eta kudeaketa:** Urnietako Udal Artxiboa.

L.G. SS 1401-2015

**Fotokonposaketa, inprimaketa eta koadernaketa:**

Michelena artes gráficas - Astigarraga (Gipuzkoa).

# Aurkibidea

Hitzaurrea .....	5
I. Sarrera .....	7
Nondik dator “Urnietak” izena? .....	7
Urnietak, lur edo unibertsitate .....	7
Urnietaren kokagune estrategikoa .....	9
Demografia .....	10
Urnietaren bizimodua .....	10
II. Urnietako unibertsitatearen bilakaera historikoa eta 1615ean hiribildu bihurtu zenekoa .	13
II.1. Auzotasun prozesua Gipuzkoan. Udal batasuna haustea eta Urnietak Donostia eta Hernaniko hiribilduekin auzotzea. ....	13
Urnietaren udal batasuna haustea .....	13
Zenbait urnietar Donostiarekin auzotu ziren .....	15
Zenbait urnietar Hernaniko hiribilduekin auzotu ziren .....	16
Urnietak Aiztondoko Alkatetza Nagusian iraun zuen .....	18
II.2. Ondorengo tirabirak eta gatazkak .....	21
Jurisdikzioari buruzko tirabirak .....	21
“Zilegi Mendien” erabilerak eragindako gatazkak .....	21
II.3. Urnietaren batasuna eta hiribildu bihurtzea .....	23
II.3.1. Urnietaren salbuespena eta hiribilduaren eraketa .....	25
Donostiaren erreklamazioa .....	34
Aiztondoko jurisdikzioaren behin betiko integrazioa .....	37
Adostutakoaren ordainketa .....	38



## Hitzaurrea

1615. urteko uztailaren 12an, Urnieta herri izendatzea lortu zen. Aurten, beraz, 400 urte bete ditugu eta, data garrantzitsu hori ospatzeko, Urnietako Udalak, besteak beste, gure herriko garai zehatz horren historia biltzeko Rosa Ayerbe historialariak idatzi duen liburua argitaratu du.

Liburuxka horren bertsio laburtu bat ere prestatu dugu, herriko gazteen-tzat, herriko ikastetxeek hurrengo urteetan Urnietako historia lantzeko material gisa erabil dezaten. Irakurterraza, grafikoa, gertukoa... Urnietako gazteek, herriko historiaren berri jakiteko aukera ederra.

Goza, ikasi, jakin ezazue Urnietako herriaren jatorria non kokatzen eta zein testuinguruetan eman zen.

Mikel Pagola Tolosa  
Urnietako Alkatea





## I. Sarrera

Gure helburua Behe Erdi Arotik hasi eta 1615. urtera arte Urnietako historia modu orokorrean aztertzea izango da. Denboran aurrera txangoren bat ere egingo dugu, Urnieta Donostiako eta Hernaniko hiribilduetatik eta Aiztondoko alkatetza nagusitik banandu eta berezko herri bihurtu zenetik aurrera sortutako arazoez aritzeko.

Aztertuko dugun espazio eta denbora eremua garbi zehaztu, eta beste alderdi batzuen berri ere jakin behar dugu gaur egungo Urnietak iraganean izan duen bilakaera hobeto ulertzeko. Horretarako, lehenengo atal honetan Urnietako unibertsitate edo lurreko alderdi sozio-ekonomikoak eta zenbait kontzeptu historiko azalduko ditugu.

### **Nondik dator “Urnietak” izena?**

Adituek hainbat interpretazio egin dituzte “Urnietak” izenaren inguruan. Batzuentzat *“lur izurtuko parajea”* esan nahi du, edo *“mendixka edo muino ugari tokia”*, *“ur asko duen eremua”* (Uroneta) edo *“burdina askoko lekua”* (Burnietak). Termino zuzenena *“Urrieta”* da (*ur asko duen tokia*) iturri natural ugari zituen tokia baita; baserri gehienek iturri horiek aprobetxatu izan dituzte eta asko lehortzen joan dira...

### **Urnietak, lur edo unibertsitate**

1615. urtea baino lehen urnietarrak *kolazio, lur edo unibertsitate* moduan antolatuta zeuden. Hau da, baserri bakanduetan sakabanatuta zeuden herritar





### Urnietako

udaletxeko Batzar Aretoko ateburuan beirate hau dago.

Guretzat, unibertsitateak goi-mailako irakaskuntzaz arduratzen den erakundea esan nahi du. Baina Erdi Aroan beste esanahi bat zeukan: "interes komunak zituzten herrixka edo auzoen multzoa, ordezkaritza juridiko bakarrean biltzen zirenak". Eta Aro Modernoaren hasieran ere, Urnietak berezko hiribildu izatea lortu zuen arte, unibertsitate hitzak esanahi hori izan zuen.

gehienak, eta parrokia elizaren inguruan (gure kasuan San Migel elizaren inguruan) gune populatuagoa zegoen. Elizaren ondoan plaza zegoen eta bertan burutzen ziren ekitaldi publikoak, jaiak eta herritarren kontzeju irekietako batzarrak.

Gipuzkoako unibertsitateak hiribilduen mende zeuden. Baina zer desberdintasun zegoen unibertsitateen eta hiribilduen artean? Batetik, unibertsitateetan biztanleria sakabanatuta zegoen, baina era berean antolatuta eta hierarkizatuta; bestetik, ez zeukaten harresiz inguratutako biztanle askoko gune indartsurik, hiribilduek bezala; eta, azkenik, baserrietako edo oinetxeetako jaunen eragin sozialaren mendean zeuden gainerako biztanleak.

Baina lur edo unibertsitate horiek ez zeuden beti inguruko hiribilduekin bat eginda; Gipuzkoan bost salbuespen zeuden: Leintz eta Oiartzun bailarak, eta Azeria (Zumarraga gune nagusia zuena), Aiztondo (Asteasu) eta Saiaz (Aia); alkatetza nagusi horietako aginte gorena (alkatea) erregeak zuzenean izendatzen zuen.

Herrixka horietako bakoitzak, printzipioz, hiribildu batekin edo bestearekin lotzea erabakitzeko eta ondasunak modu autonomoan kudeatzeko gaitasuna zuen, eta jurisdikzio nahiz justizia gaiak bat egindako hiribilduaren esku geratzen ziren.

Urnieta, jatorriz, lurralde unitate trinko eta batua zen. Baina XIV. mendean amaieran eta XV.aren hasieran batasun hori hautsi egin zen, urnietar batzuek Donostia eta Hernaniko hiribilduekin bat egin zutelako eta gehienak Aiztondoko alkatetza nagusian geratu zirelako.

### **Urnieta ren kokagune estrategikoa**

Jatorrizko Urnieta Gipuzkoako eragin handieneko bi hiribilduen erdibidean zegoen: Donostia eta Tolosa. San Migelen parrokia eliza muino batean kokatuta zegoen eta herrigunea San Joan kaleak eta errege-bideak (egungo Idiazabal kaleak) mugatzen zuten.



Urnieta berezko hiribildu izan baino lehen ere, herriguneko muino gainean San Migel eliza zegoen. Parrokia eraikitzeko lanak 1599ko irailean amaitu zituzten.



Urnietako lurak ondorengoak zituen mugakide: iparraldean, Hernaniko hiribildua; hegoaldean Andoaingo unibertsitatea (Tolosako hiribilduaren menpekoa, Urnietako lurrarekin harreman estua zuena); ekialdean, Urumea ibaia, Hernani eta Donostiako hiribilduak eta Berastegi eta Elduaiengo unibertsitateak (hauek ere Tolosako hiribilduaren mendekoak); eta mendebaldean, Aiztondoko alkatetza nagusia bera, Oria ibaiak zeharkatzen zuena.

Oria bailarako bide-sarean integratuta zegoenez, aztergai dugun garaian, Urnieta pasabide estrategikoa zen. Hala, Maribeltranena etxe eta ostatuan (gero Zaldundegi izango zena) posta etxea jarri zuten. Posta etxe horiei esker, postariak Toledo eta Brusela arteko bidea neguan 12 egunetan eta udan 14 egunetan egin zezaketen, 10 edo 12 kilometroan behin zaldiz aldatzeko aukera baitzeukaten.

## Demografia

Zaila da Urnietako duela 400 urteko biztanle-kopurua eta, bereziki, biztanleriaren bilakaera jakitea, oso datu gutxi baitaude horren inguruan.

Hain zuzen, 1615ean, banantze gastuei aurre egiteko, herrixkaren biztanle-kopurua aztertu zuten eta horregatik dakigu urte horretan Urnietan 295 biztanle-unitate edo etxe ziur eta 22 zalantzazko zeudela. Etxe bakoitzeko 5 pertsona jota, 1.475 edo, zalantzazkoak barne hartuta, 1.585 biztanle zeudela ondo-rioztatu dezakegu.

## Urnietarren bizimodua

Urnietako biztanleak kapareak ziren, beren etxe eta baserrien jabe eta zenbaitetan "jaun" ziren, eta San Migel parrokiako ugazabak nahiz unibertsitateko ordezkariak edo zinpekoak aukeratzeko gaitasuna zuten (jurisdikzio kontuetan beste hiribilduetako alkateen menpe egon arren).

Urnietako herritarren bizimodua ingurukoaren antzekoa zen, baldintza geografiko eta sozio-ekonomikoek behartuta. Garai hartako gizartea landakoa zen, eta Gipuzkoako paisaiaren elementu nagusiak oinetxeak eta baserriak ziren. Hau da, urnietarrak nagusiki abeltzainak eta nekazariak ziren.

Nekazaritza eta abeltzaintza jardueraren osagarri gisa, sagardoa egiten zuten, sagarrak eta gaztainak biltzen zituzten, erlauntzen bat ustiatzen zuten,





Joan den mendean, urnietarrak ospakizunak sagardoz busti ohi zituzten. Duela 400 urte ere sagardogintza jarduera garrantzitsua zen nagusiki nekazaritzaz eta abeltzaintzaz bizi ziren urnietarrentzat.

mendi propio nahiz komunal ugari onura ateratzen zieten, eta ibaietan izokinak, amuarrainak eta barboak arrantzatzen zituzten.

Baina Urnietan ere baziren merkatariak, artisauek, soldatapekoak (nagusiki Urumea bailarako burdinoletan eta produktu nahiz material garraioan jarduten zutenak), Ternuan aritzen ziren arrantzaleak, eta bestelako lanbideak zituztenak, hala nola ostalariak.

Baina urnietarrak zerbaitetan nabarmendu baziren, etxea eta baserria utzi eta Indietara joateko gaitasunean izan zen. Konkistatzaileak aurrera egingen ari ziren, eta Gaztelaren botere politiko eta ekonomikoa sendotzen ari zen Ameriketan. Dakigunez, hainbat gazte urnietar deskubritzen ari ziren kontinentera joan ziren aberastasun bila. Eta horietako batzuk ahaleginean hil ziren.



## II. Urnietako unibertsitatearen bilakaera historikoa eta 1615ean hiribildu bihurtu zenekoa

### II.1. Auzotasun prozesua Gipuzkoan. Udal batasuna haustea eta Urnieta Donostia eta Hernaniko hiribilduekin auzotzea.


Bi mendetan (1180-1383) erregeek foruak eta pribilegioak emanaz fundatutako 25 hiribilduekin batera, biztanle gune txikiak zeuden, garaiko dokumentuetan *lur*, *unibertsitate*, *elizate*, *kolazio* edo, aurrerago, *herrixka* esaten zaienak. Ez zuten hiribilduen eskubide pribilegiadunik, eta zuzenbide tradizionalaren nahiz Ahaide Nagusiak izeneko jaunen menpe zeuden. Landa eremu garrantzitsuen jabe izaki, nekazaritzan eta abeltzaintzan jarduten zuten, eta ez hiribildu forudunen ohiko artisautza, merkataritza eta industria jardueretan.

Horregatik, XIV. mendetik aurrera, hiribilduei ematen zitzaizkien foruak bizibaldintzak hobetzen zituenez, bereziki Ahaide Nagusien presiotik babesten zituztelako, eta XV. mendetik aurrera, nagusiki abantaila ekonomikoak medio, lur edo unibertsitate horietako asko (zenbait pertsona eta etxe partikular ere) inguruko hiribilduekin auzotasun kontratuak sinatzen hasi ziren eta, hala, herrixka bihurtu ziren. Hainbat urnietarrek arrazoi horiek bultzatuta egin zuten bat Hernanirekin eta Donostiarekin.

#### Urnietaren udal batasuna haustea

Urnietak beti izan zuen harreman estua ondoko herrieekin, bereziki Andoain eta Hernanirekin. Baina urnietarren arteko desadostasunen eraginez, hiribilduekin batuta auzotzea erabaki zuten beste lur batzuek ez bezala, Urnietak batasuna hautsi zuen: gehienak Aiztondoko Alkatetza Nagusian geratu ziren, eta beste zenbait etxek eta baserrik Donostiako eta Hernaniko hiribilduekin bat egin zuten.





Herrixkak Tolosara, Segurara eta Ordiziara, eta urnietarrak Hernanira eta Donostiara auzotzearen mapa.

## Zenbait urnietar Donostiarekin auzotu ziren

Akordioaren dokumentua gorde ez denez, auzotzearen aurrekariak, data zehatza eta baldintzak ez dakizkigu. Baina badakigu XIV. mendearen amaieran edo XV.aren hasieran Donostiarekin bat egindako zatiak Urnietako biztanle asko biltzen zituela. San Migel elizak eta 29 etxe nahiz baserri hauek osatzen zuten: *Adarraga, Alaricu nagusia, Alaricu txikia, Alcibar, Almorza, Amitesarobe, Arancibia, Araneder, Ayerdi, Azconobieta, Barcardaztegui* behekoa, *Basoaltu, Berasaberro, Berrasoeta, Dendaltegui, Elqueta, Elquezabal, Embutodi, Erauso-andia, Ermutegui, Galardi, Guerez, Larburu* behekoa, *Larburu* erdikoa, *Lasarte* behekoa, *Loperdi, Orcayen, Oyanume* eta *Oyarbide*: Aurrerago beste hauek egin zuten bat: *Echeberria, Florencia, Garmendia, Querin* eta *Urmeneta*.



Ayerdi XIV. mendearen amaieran edo XV.aren hasieran Donostiarekin bat egindako etxeetako bat izan zen.

Aldeek sinatutako dokumenturik ezean, ezin dugu jakin zehazki zer baldintza adostu zituzten. Baina, antzeko beste akordio batzuetan oinarrituta, hauxe esan dezakegu:

- \* Batasuna betierekoa izango zen, eta hiribilduak *“laguntza ona”* emango zion, *“gainerako biztanleei eta auzoei bezala”*.
- \* Biztanle berrien auziak eta desadostasunak (zibilak nahiz kriminalak) Donostiako hiribilduko justiziak edo alkateak konponduko zituen, eta erabakiak ere hark gauzatuko zituen.
- \* Urnietako hiribilduari urtero kopuru jakin bat ordainduko zion, Batzar Nagusietan edo bestelakoetan ordezkaritza izatearen truke.
- \* Urnietan betearazi beharreko auzietarako, hiribilduak bidalitako eskribauak eta pregoilariak jasoko zuten soldata adostuko zen.
- \* Urnietako biztanleek hiribilduko alkateari ordaindu beharko zioten haientzat emandako aginduen truke.
- \* Donostiak bertan auzotutako urnietarrak babestuko zituen kontzejuek nahiz gizabanakoek haien aurka erabilitako indarkeriatik, eta beren pribilegio eta askatasunak gordeko zizkien, donostiarrenak bezala.

Baldintza horietan Donostiarekin bat eginda, urnietarrek garaiko gertakari soziopolitikoetan parte hartu behar izan zuten, zuzenean nahiz zeharka, besteak beste, erregeak probintziari eskatutako gudarosteetara semeak bidaliz. Soldadutzan horiek probintziak hiribilduei eskatu arren, herrixkek edo unibertsitateek antolatzen zituzten haien eskariz, egokitutako kupoaren arabera.

### Zenbait urnietar Hernaniko hiribilduarekin auzotu ziren

Hernani hiribildu industrialia zen, Urumea bailarako burdinola ugariei esker, eta Donostiarekin *Zilegi Mendien* eremu handia partekatzen zuen. Hiribildu horrekin Urnietako 16 etxe eta baserrik bat egin zuten, lehen 15ak Hernaniko Arreizola sagastian 1402an sinatutako kontratuaren bidez. Hauek dira kontratuan lotutako etxeak: *Aguirre, Altuna, Arizola, Artolea, Azteguieta, Bidarte, Egurrolako bi etxeak, Erauso-chipi, Garraza, Gorostiaga, Guruceta, Idiazabal, Izaguirre eta Zucinaga*.

Auzotasun hau ere betierekoa zen, bat egindako biztanleek libreki erabakitakoa. Nahi ez bazuten, hiribilduko erronda eta beila zerbitzuetan ez parte hartzeko eskubideari eusten zioten, baita beraien sagardoaz libreki gozatzeko eskubidea ere.



Handwritten text in Basque script, likely a contract or legal document. The text is dense and covers most of the page. At the bottom, there is a large, ornate signature or seal, and the date "1429" is visible. The document is aged and shows signs of wear, including a small hole near the top left.

Hernanirekin auzotze-kontratua (1429).  
AM Hernani C/5/V/1/1

Hiribilduko kontzejuak biztanle berriak hernaniarrak bailiran laguntzeko, defendatzeko eta aholkatzeko zina egin zuen. Gainera, haien abereak Hernaniko mendi eta larreetan bazkatzeko aukera izango zuten; hortik abiatuta, urnietarrek Urumeako Zilegi Mendiak erabiltzeko eskubidea lortuko zuten eta horrek tirabira handiak eragingo zituen gerora. Ereku horietan jarduera bakarra ukatu zitzairen, hiribilduko beste biztanle guztiei bezala: kontzejuaren baimenik gabe, zuhaitzak, *“txikiak zein handiak”*, moztea.

Auzotasun akordio hori 1429ko azaroaren 6an osatuko zen, Hernaniko San Joan elizaren hilerrian, 16. urnietarrek bat egin zuenean: Ochoa de Areizmendi, *“Ochoalaza”* ezizena zeukana, orduan eraikitzen ari ziren *Oyarbide* etxearen jabea.

Gainerako urnietarrek 1402an sinatutako kontratuan zehaztutako baldintza, zerbitzu eta eskubide berberak izango zituen azken horrek ere.

Horrenbestez, Hernaniko biztanle berri horiek babes eta segurtasuna lortu zuten hiribildu boteretsuan, baita mendi nahiz baso eremu bikainak erabiltzeko eta ustiatzeko aukera ere. Gainera, ez zuten autonomia galdu, nahiz eta Hernaniko alkatearen jurisdikziopean egon (gainerako biztanle guztiak bezalaxe). Hiribilduak, bere aldetik, jurisdikzioa eta biztanle-kopurua zabaltzea lortu zuen, eta horrek Batzar Nagusietako botoetan eta banaketetan eragina zeukan.

Gainera, Hernanik San Migel elizako plaza publikoaren eta bertako etxeen (*Balategui* eta *Mariahederra*) jurisdikzioa lortuko du, akordioan jasotako etxeenaz gain.


## Urnietak Aiztondoko Alkatetza Nagusian irautu zuten

Zenbait urnietarrek Donostiako eta Hernaniko hiribilduekin sinatutako auzotasun kontratuen ondoren, gainerako biztanleak Aiztondoko alkatetza nagusiarren jurisdikziopean geratu ziren.

Ezin dugu zehazki jakin zenbat biztanle geratu ziren alkatetzan, baina gehienak izan zirela uste dugu, Aiztondoko alkateak Urnietako barrutiko ordezkari izaten jarraitu baitzuen. 1534an esan zutenenez, Hernanikoak eta Donostiakoak *“beste hainbeste ziren ia”*.


Urnietar horiek errege-erreginek izendatutako alkatearen eta haren alkateordeen agindupean zeuden, Asteasuko alkatetza buru zutela. Alkatetza horren jurisdikzioa Joana erreginak Juan Borja Castro Mayaldeko I. kondeari (San





Donostia eta Hernanira auzotutako etxeen mapa.





Jurisdikzioak aldi berean nola banatzen ziren erakusten duen mapa.

Frantzisko Borjaren semeari) eman zion 1558an. 1606an hil zenean, Filipe III.ak Francisco Borja, Esquilacheko printzeari eman zion eskumena.

Alkate nagusi horiek gortean bizi ohi ziren, eta alkateordeak izendatu ohi zituzten justizia administratzeko. Urnietari zegokionari “Urnietako barrutiko alkateorde nagusi” esaten zitzaion.

Horrenbestez, urnietar batzuk Donostia eta Hernanirekin auzotuta, eta gainerakoak Aiztondoko alkatetza nagusian geratuta, Urnietaren egoera ezohikoa eta Gipuzkoan parerik gabea zen: hiru jurisdikzio lur bakarrean.

## **II.2. Ondorengo tirabirak eta gatazkak**

### **Jurisdikzioari buruzko tirabirak**

Jurisdikzioaren kudeaketa ez zen beti baketsua izan Urnietako alkateentzako (batez ere bi hiribilduetako alkateentzako), eta XVI. mendean zehar biztanleen eta alkateen arteko tirabirak areagotu ziren.

Alkateen artean sor zitezkeen gatazkez gain, hiribilduek ez zieten erantzun haiekin bat egitea erabaki zuten urnietarren itxaropenei. Izan ere, hiribilduetako biztanle izan arren, kontzejuaren lanbideetan jardutea debekatuta zuten, jatorrizko donostiarrak eta hernaniarrak soilik aritu baitzitezkeen jarduera horietan.

Baina hiribilduetako kargu publikoetan aritzeko aukera ez zen gatazka iturri bakarra izan. Alkateek kargu publiko horiek Urnietan gauzatzeko modua ere gatazatsua izan zen. Gai honi buruzko dokumentu gabeziaren ondorioz, ezin dugu jakin zehazki urnietarrak zenbatetan egin zieten aurre hiribilduetako alkateei unibertsitatera justizia administratzera nahiz bertako pisu eta neurriak berrikustera etortzen zirenean. Baina badakigu zenbait kasu izan zirela eta ziurrenik ez ziren salbuespen hutsak izango.

### **“Zilegi Mendien” erabilerak eragindako gatazkak**

Urumeako Zilegi Mendiak, “Urumea eta Esteizakoak” ere deituak, Donostiako eta Hernaniko hiribilduek aspaldian, hiribilduak fundatu baino lehen ere, partekatzen zituzten eremuak ziren. Basoen sei hamarren Donostiari





zegozkion, eta gainerako lauak, Hernaniri. 1379ko abuztuaren 10ean bi hiribilduek basoen ustiapena kontzejuen eta biztanleen eskura uztea adostu zuten. Joan I.ak berretsitako kontratuak basoen erabilera zilegitzen zuen, eta hortik dator, hain zuzen, Zilegi Mendien izena.

Donostiarekin eta Hernanirekin auzotuta, Urnietak ere baso eta larre horiez baliatzeko eskubidea lortu zuen. Auzotutako urnietarrek libreki zuhaitzak mozteko eta abereak bazkatzeko aukera izan zuten, XVI. mendearen hasieran eskubide hori zalantzan jarri zieten arte. Bailaran burdingintza nabarmen hazten ari zen, eta burdinolak elikatzeko ikatz ugari eta, beraz, basoetako egur ugari behar zen. Urnietak ez zuen burdinolarik; bi hiribilduek, ordea asko zituzten (16).

### **II.3. Urnietaren batasuna eta hiribildu bihurtzea**

Aldeen arteko gatazka asko izan arren, Urnietako jurisdikzioa zatituta egon zen 1614. urtea bitartean. Orduan, hiru zatiek zegozkien jurisdikzioetatik banantzea eta denek batera hiribildu bakarra osatzea bultzatu zuten. Prozesu hori ez zen bakarra izan, bereziki Tolosari, Ordiziari, Segurari eta XIV. mendearen amaieratik nahiz XV.aren hasieratik horiekin auzotutako 30 herrixka ingururi eragin zien fenomeno zabalagoa baizik. Prozesu horretan Urnietak bakarrik egin zuen bidea, baina aipatutako herrien bidea eta arrakasta izan zituen aurrekari.

XVI. mende berriak garapen ekonomiko eta sozialerako itxaropen handiak ekarri zituen, bereziki Gaztelako Koroaren lurraldeentzako. Errege-erregina Katolikoek ondoren monarkia indartu egon zen, Amerikaren aurkikuntzak eta konkistak urrea ekarri zuen, Gaztelak arrakasta diplomatiko, politiko eta militar handia izan zuen Europan eta munduan eta horrek guztiak oinarri sendoak jarri zituen erakundeen nahiz zuzenbidearen garapenerako. Horren ondorioz, mugimendu emantzipatzailea sortu zen Gipuzkoako herrixka eta unibertsitateetan eta, zehazki, Urnietan. Garaiko dokumentuetan etengabe agertzen da gai hori, eta herrixka horietako batzuek beren historiako abentura bikainenari ekin zioten: agindupean zituzten hiribilduetatik bereizteko borroka.

Bereizketa mugimendu hori ez zen ez jarraia ez bateratua izan, eta herrixka guztiek ez zituzten arrazoi berak izan helburu horren bila joateko.



## LEHENIK UDALA SORTU ZEN, GERO UDALETXEA

Hiribildu izan baino lehen, urnietarrak elizako hilerrian edo herriko plazan bertan bildu ohi ziren kontzejuan. 1615etik aurrera alkatea eta bi errejidoreak Igerdi edo Maribeltran etxean, gerora Zaldundegi esango zitzaionean, biltzen hasi ziren, Antonio Absalon Urnietako lehen alkatearen etxea baitzen. Ondoren, kontzejua biltzeko San Joan Ebanjelariaren ermita erabiltzen hasi ziren (egun, Santa Leokadia), hiribildu berriak kontzeju-etxe propioa merezi zuela erabaki zuten arte.

1617ko martxoan dena prest zegoen udaletxea eraikitzen hasteko. Baina Donostiak Urnietaren zati bat berreskuratu zuen, Aiztondoko zatiak ez zuen Esquilache hil artean Urnietarekin bat egingo, eta egoera horretan eraikin berria ez zen lehentasuna; proiektua bertan behera geratu zen. Garaiko dokumentuek behintzat udaletxearen eraikuntza aipatzeari utzi zioten, XVII. mendearen amaiera arte. Orduan ekin zieten egungo udaletxea eraikitzeko lanei.



Urnietako udaletxea eraikitzeko proiektua herriak hiribildu izaera lortu eta behala abiatu zuten, baina XVII. mende ia osoan proiektu hura geldirik egon zen.

### II.3.1. Urnietaren salbuespena eta hiribilduaren eraketa

Urnietan goiz piztu zen 1615ean Gipuzkoa osoan izandako bereizketaren aldeko mugimendua. 1608an, Juan Borja, hil zenean Aiztondoko alkatetza nagusiaren kargua hutsik geratu zen. Alkatetza osatzen zuten herriek, hau da, Urnietaz gain, Asteasu, Larraul, Sorabilla eta Astigarragak (Murgia gabe), erregeak eskumena eman diezaien saiatu ziren. Baina Asteasuk alkatetzako buru izateko asmoa zuen eta, horren aurka, Urnietak eta Astigarragak auzia abiatu zuten Errege Justizia Kontseiluan. Auziak luze joko zuela aurreikusita, urnietarrek Perucho de Mena Erre Kontseiluko prokuradoreari ahalmena eman zioten erregeari eskatzeko Aiztondoren agindupean zegoen Urnietaren zatirako alkatea izenda zezan; *“tre-bea, askia eta gure lurreen errotua”* izan behar zuen.

Baina erregeak ez zuen horrelakorik egin. Hildako alkatearen semea, Esquilacheko printzea izendatu zuen alkate nagusi, eta hala amaitu zen auzia.

Gauzak horrela, 1611. urtea hasi baino lehen, alkatetzako herriek, Urnietak barne, jakin zuten Esquilacheko printzeak jurisdikzioa Francisco Irazabal Madrilen bizi zen Santiagoko Ordenako zaldunari saldu nahi ziola. Salmenta herrientzat oso kaltegarria izango zela aurreikusita, jurisdikzioa beraiek erostea pentsatu zuten. Hala, 1612an, Urnietako kontzejuak, hainbat ordezkari izendatu zituen jurisdikzioa Irazabali saltzea saihestu eta 2.000 dukaten truke erosteko proposamena egin zezaten.

Negoziaketek emaitza ona izan zuten eta 1613ko maiatzaren 22an, Madrilgo Juan de Santillana eskribaua lekuko, printzeak eskritura ematea lortu zuten: lau hilabeteko epean alkatetza herrien esku izango zen eta kontzeju bakoitzak bere alkatea izango zuen. Ordezkariak 1.000 dukat eman zizkieten orduan eta gainerako 1.000 dukatak erregearen zedula jasotzean ordainduko zizkieten. Baina lau hilabeteak joan ziren eta printzeak ez zuen konpromisoa bete. Zer gertatu zen?

Badirudi, ordezkarietako baten ahotik, Aiztondoko lurren asmoaren berri Hernanira eta Donostiara iritsi zela. Bi hiribilduek ez zituzten Urnietako biztanleak galdu nahi eta hori saihesteko Esquilacheko printzearekin harremanetan jarri ziren berehala. Haiek ere jurisdikzioa erosteko beste proposamen bat egin zioten.

Madrilera Martin Justiz ordezkaria bidali zuten eta, hala, Donostiak eta Hernanik ere Aiztondoko alkatetza nagusiaren jurisdikzioa erosteko akordioa lortu zuten printzearekin. Aurreko proposamena gaindituz, 3.000 dukat (33.000 erreale) ordainduko zituzten.



Baina, berriro, akordioa ez zen gauzatuko, Esquilacheko printzeak beste kontu batzuk baitzeuzkan gogoan. 1614an Peruko erregeorde izendatu zuten eta, ondorioz, luzaroan egongo zen Europatik kanpo. Hala, ez zion Aiztondoko alkatetza nagusia inori saldu.

Aiztondoko lurrak 1614ko otsailean berriro saiatu ziren erosketa burutzen, dagoeneko 1.000 dukat ordainduak baitzituzten. Baina ahalegin guztiak alferri-kakoak izan ziren.

### URNIETAKO ARMARRIAREN BILAKAERA

Urnietako armari-zigiluaren deskribapen zaharrena 1660. urtekoa da, beraz, hiribildu bihurtu eta handik urte batzuetakoa. Testu horren arabera, "armarriak lau laurden ditu. Lehenengoan eta azkenekoan, eremu gorriaren gainean, ertzak ukitzen ez dituzten zilarrizko gurutze soil bana; beste bietan, eremu urdinean, zortzi izpiko urrezko izarra".

Horren arabera, Urnietako armariak, jatorriz ezkerreko irudiaren itxura izango zukeen eta, denboraz, koloreak aldatuz joan ziren, izarren urrea zilartu zen, egungo armarrira iritsi arte (eskuinean).



Aurrerantzean, Urnietak, bat eginda eta hiru zatietako zinpekoek ordezkatura, salbuespena lortzeko eta hiribildu berri bat eratzeko ahalegina egingo zuen. Aiztondoko gainerako kontzejuekin bat (Asteasu, Astigarraga, Larraul eta Sorabilla), erregeak eta haren Ogasun Kontseiluak zedula bat ematea lortu zuen, jurisdikzioen aldaketak Ogasunari ekarriko zizkion onurak eta besteei eragin ziezaiekeen kaltea jasotzen zituena.

Gaia bitan jorratu zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan, 1614ko apirilaren 21ean eta maiatzaren 7an, eta, azkenean, Batzar Nagusiek Urnietaren salbuespenaren aurkako jarrera hartu zuten.

Horrez gain, Urnietako kontzejuak uste zuen erregeak alkatetza Francisco Borjari eman izana probintziaren pribilegio eta ordenantzen aurkakoa zela, kargu horiek bertakoei zegozkielako eta ez Esquilacheko printzea bezalako arrotzei. Mezu hori Madrilgo gortera helarazten ahalegindu ziren Gipuzkoako korregido-rearen bidez, baina badirudi ordezkariak entzungor egin zuela, 1614ko urriaren 18an agindutakoa betetzeko eskatu baitzioten berriro. Hala ere, egun batzuk geroago, urriaren 28an eta azaroaren 21ean, Urnietak Juan Ikuza lizentziaduna ordezkari izendatu zuen salbuespen-eskaeraren baldintzak Ogasun Kontseiluarekin adosteko. Eskaerak hauxe zioen:

- \* Hiribilduekin auzi ugari zituztela, tratu txar eta eragozpen asko jaso zituztela, eta gastu handiei aurre egin behar izan zirela.
- \* Lur eremu, muga eta gobernu bereziak zituztela, menpeko ziren hiribildu eta alkatetzarekiko, eta haiek jurisdikzioa besterik ez zutela.
- \* Une horretan unibertitate asko zabaldu zela, biztanle asko zituela, eta gehiago izango zituela hiribilduetatik eta alkatetzatik bereizi ondoren. Hala, biztanle egokiak izango lituzkeela gobernurako, guztiak probintzian sortuak. Eta erregearen zerbitzura bizkorrago joateko moduan izango zirela, aginduak betetzera aurretik hiribilduetara joateko beharrik gabe.
- \* Erregeak salbuespena eta berezko hiribildua eratzeko baimena eman bezala, Gipuzkoako gainerako hiribilduei bezala, berriki Seguratik banandutako Legazpiari eman bezala. Eta Batzar Nagusietan nahiz beste erakundeetan Urnietako ordezkaria bidaltzeko aukera izan bezala.





San Joan Ebanjelariaren ermita (egun Santa Leokadia), eskuinean, San Migel elizaren arkupetatik ikusita. Ermitaren lehen erreferentzia 1584koa da. Urte batzuk geroago, benetako udaletxerik ezean, hiribildu berriko udal ordezkariak bertan bilduko ziren.

Ogasun Kontseiluak eskaera aztertu ondoren, 1615eko uztailaren 4an Urnietak eta Kontseiluak salbuespen-idazpena sinatu zuten.

Horrenbestez, Urnieta berezko hiribildu bihurtu zen, erabateko eskumena zuena, beste edozein hiribildu bezala Gipuzkoako Korregimenduaren mende zegoena, prokuradoreak Batzar Nagusietara eramateko eta bertan bozkatzeko eskubidea zuena. Gobernurako, aurrerantzean alkatea eta alkateordea izendatu behar zituzten, baita errejidoreak eta garaiko gainerako kargu ofizialak ere. Baina Aiztondoko alkatetzari zegokion zatian idazpena ez zen gauzatuko Esquilache hil arte, bizi artean alkatetzaren eskumena erabiltzeko errege baimena baitzeukan.

Donostiako nahiz Hernaniko auzitegieta itxi gabeko auziak Urnietako alkateari bidali zitzaizkion, hark epaitu eta itxi zitzaion.

Urnietako landa eremuak urnietarrek erabiliko zituzten soilik, baina banandu berri ziren hiribilduekin zuten erabilera partekatua bere horretan geratuko zen (Zilegi Mendien erabilera eta ustiaketaz ari ziren).

Idazpena sinatu ondoren, Hernando de Ribera lizentziadunari helarazi zitzaion, hura Urnietako lehen karguen hautaketan izan zedin, alkateari kargua eman ziezaion eta Urnietako mugak ezar zitzaion "*ohi bezala*". Eta, gero, erregeak urnietarrek irrikatutako salbuespena emango zuen. Baina horretarako, Urnietak bizilaguneko 25 dukat (9.375 marabedi) ordaindu behar zizkion erregeari.

Salbuespenaren baldintza horiek onartuta, Filipe III.a erregeak 1615eko uztailaren 12an eman zion behin betiko hiribildu izaera Urnietari.






**URNIETA BEREZKO HIRIBILDU BIHURTZEKO SALBUESPEN-  
IDAZPENA. 1615eko uztailaren 12a**

*Don Phelipe etc. A vos el Licenciado Hernando de Ribera. Saved que por mi mandado se ha tomado asiento y concierto con el concejo y vezinos de la unibersidad de Urnieta, qu'es en la Provincia de Guipúzcoa, y con el Licenciado Don Joan de Icuça en su nombre, en virtud de su poder, el qual yo he aprobado por cédula mía de la fecha de ésta y es sobre la merced que hago a la dicha uniberssidad de Urnieta de eximirla y apartarla de la jurisdicción y juzgado de las villas de San Sebastián y Hernani y de la alcaldía de Aiztondo, en la dicha Provincia, y hazerla villa de por ssí, con jurisdicción civil y criminal, alta y vaja, mero mixto ymperio, en ella y en sus términos de las dichas villas de San Sevastián y Hernani desde luego, y de la dicha alcaldía de Aiztondo después de los días de Don Francisco de Borja, Príncipe de Esquilache; y que el alcalde hordinario y el teniente de la dicha uniberssidad y los rregidores y demás oficiales que ha de haver en ella sean elegidos y nombrados en la forma que se declara en el dicho asiento. Por lo qual han ofrecido serbirme con veinte y cinco ducados por cada vezino de los que obiere en la dicha unibersidad de Urnieta y sus términos, pagados a los plaços y en la forma y con las condiciones contenidas en el dicho asiento, según más largo en el [asiento] a que me rrefiero se contiene.*



Agindu bezala, abuztuaren 6an Ribera mandataria Urnietara etorri zen eta bere zeregina bete zuen: herriari hiribildu izaera eman zion eta lehen udalaren izendapen ekitaldian izan zen. Antonio Absalon izendatu zuten alkate eta Domingo Almorza zein Antonio Petriyarza errejidore.

A handwritten signature in dark ink on a white background, reading "Antonio Absalon". The signature is written in a cursive style with a large initial 'A'.


Antonio Absalon Urnietako lehenengo alkatearen sinadura.

Egun berean, Ribera gertatutakoa idatziz igorri zien ordurarte Urnietaren zati bat auzotuta zuten hiribilduei. Donostiak salbuespenaren erreklamazioa egin zuen eta Donostiako biztanle izandako urnietarrak berriro hartuko zituen. Hernanik, bestalde, Urnietak Zilegi Mendien erabilera atxiki izana erreklamatu zuen, baso horiek soilik Donostiarenak eta Hernanirenak zirela uste baitzuen.

Bitartean, Gipuzkoako Batzar Berezia deitu zuten 1615eko irailaren 3an, Bidanian. Ribera batzarkide berriak aurkeztu zituen: Urnietaz gain, Alegia, Baliarrain eta Arama. Hiribildu berrien errege zedulak irakurrarazi zituen eta Tolosa zein Ordiziak eta, Urnietari dagokionez, Donostia eta Hernanik protesta egin arren, batzarrak men egin zion erregearen aginduari. Hiribildu berriei eragozpenak eragiteak 50.000 marabediko zigorra izango zuela jakinarazi zuen eta Urnietaren kasuan zehaztu zuen Donostiako eta Hernaniko zatien eskumena soilik ematen ziela, Aiztondori zegokiona Esquilacheren menpe baitzegoen.

Hurrengo Batzarra, Urnietak esku hartuko zuen lehen Batzar Nagusia, Deban egingo zen, 1615eko azaroaren 26an. Bitartean, Ribera mandataria Urnietako hiribildu berriaren bizilagun kopurua ikertzen hasi zen. Kontzejuak, 1616ko urtarrilaren 25ean 295 auzo ziur eta 22 zalantzazko zeudela adierazi zuen, eta urte bereko apirilaren 20an gorteak kalkulatu zuen Urnietak 2.765.625 marabedi ordaindu behar zituela (25 dukat edo 9.375 marabedi auzo bakoitzeko), baina gero 552.053 marabedi kendu zituzten. Hala, Urnietak 2.213.972 marabedi ordaindu behar zizkion koroari.





Batzar Nagusien marrazkia, Urnietaren eserlekua barne.

## Donostiaren erreklamazioa

Donostiak Filipe III.aren gana jo zuen, Estatu Kontseiluaren bitartez, banantzearen aurka egiteko. Eta, eskaeraren ondorioz, Donostiak jurisdikzioak lehen zeuden bezala atxikitzeko errege zedula lortu zuen. Horren bidez, Hernando de Ribera burutzen ari zen salbuespen prozesuak eteteko asmoa zuen Donostiak, baina ordezkariak aurrera jarraitu zuen, Donostiak zedula amarruz eta hirugarrenen kaltetan lortu zuela argudiatuz.

Donostiak berriro jo zuen erregearengana ordurarte auzotuta izandako Urnietako zatia berreskuratzeko asmotan. Urnietak Ogasun Kontseiluarekin adostutako salbuespena gogorarazi zion koroari, baina alferrikako ahalegina izan zen. 1616ko otsailaren 19an erregeak jurisdikzioa Donostiari itzultzeko agindu baitzuen.

Korrejidoreak ez zituen aintzat hartu urnietarren argudioak eta, hilabete geroago, mandatua betetzeari ekin zion. Dena den, ez zen lan erraza izan, Donostiaren agindupean zeuden baserriak oso sakabanatuak baitzeuden. 1616ko martxoaren 10etik hasita, korregidorea edo haren ordezkariak, Donostiako ordezkariak eta eskribauak lagunduta, etxez etxe eta baserriaz baserri joan ziren Donostiaren jurisdikzioa berrestera: *Lasarte* goikora joan ziren lehenik, *Elquezabal* etxera ondoren, handik *Adarraga* eta *Basoaltura*... Baserrietako lurretan ibili ziren eta etxe barruetan sartu, "*oinez nahiz zaldiz*", eskumena berreskuratu izana adierazteko.

Azkenik, martxoaren 16an, korregidorea, Donostiako alkate eta ordezkariekin batera, San Migel elizan sartu zen, eta meza entzun ondoren, gorteko mandataria eliza Donostiari itzuli zion.





Azkorteko Santa Kruz ermita XVI. mendeko testamentuetan maiz aipatzen da.

Beste hainbat alferrikako ahalegin egin ondoren, azkenik, ekainaren 26an, Urnietako udalak men egin zuen eta Donostiaren jurisdikzioa onartu zuen hiribildu izaera lortu baino lehen haren agindupean izan zen zatian. Auzi iskanbilatsua hortxe amaitu zen, momentuz behintzat. Denboraz, zati horrek Urnietarekin bat egingo zuen.

## Aiztondoko jurisdikzioaren behin betiko integrazioa

Esan bezala, Aiztondoko alkatetza nagusiar zegokion zatia ez zen berehalakoan Urnietako hiribilduarekin bat egin, Esquilacheko printzeak bizi osoko hobaria zuelako. Esquilache 1648an hil zen eta jurisdikzioa erregearen esku geratu zen.

Horregatik 1651ko maiatzaren lehenean, Tolosan bildutako Batzar Nagusian, Aiztondoko alkatetza nagusiko lur guztiek probintziaren babes eskatu zuen erregeari jurisdikzioa eman ziezaien eskatzeko.



Urnietako lehen udal ordenantzak, 1761.



Hala, zati horretako urnietarrak alkatetzatik banandu ziren eta Urnietako hiribilduarekin bat egin zuten. Aiztondoko gainerako herriek eskumena 1.400 dukaten truke erosi zioten koroari, 1659ko abenduaren 22an.

Urnieta bateratuta, hiribildu berriak Arrasaten burututako Batzar Nagusietan parte hartu zuen 1660ko azaroan, eta lehenengoz Aiztondoko zatiari zegozkion 8 bozkak erabiltzeko aukera izan zuen.

### Adostutakoaren ordainketa

Urnietak 1615eko uztailaren 4an Ogasun Kontseiluarekin sinatutako salbuespen-akordioaren baldintzen arabera, hiribilduak diru kopuru garrantzitsua ordaindu behar zion Errege Ogasunari. Hasiera batean 2.213.972 marabediko kopurua ezarri arren (Gipuzkoako hirugarren garestiena, Andoain eta Zegamaren ondoren), ordaindu beharrekoa doitu zuten aurrerago. Hernaniren menpe egondako etxeei zegokien ordainketa gutuna jaso arte, eta Donostiari zegokion zatiak ordaindu beharrekoa kendu arte, ez zuten behin betiko zenbatekoa zehazterik izan.

Izan ere, Urnietako hainbat biztanle Donostiara itzuli izanak Urnietako hartutako konpromisoa aldatu zuen. 1616. urtearen amaieran Ogasun Kontseiluko ordezkariak Urnietara iritsi zen, salbuespenaren ordaina jasotzera. Juan Gonzalez Arcautek 101 egun eman zituen Urnietan, baina Kontseiluak Madrilera esku hutsik itzul zedin agindu zion, Donostia eta Urnietaren arteko auzia konpondu bitartean. Hori bai, Gonzalezek eguneko 500 marabediko soldata eskatu zuen eta Urnietako udalak 50.500 marabediak ordaindu zizkion.

Ez dakigu Urnietari salbuespena lortzeko azkenean zenbat diru eskatu zioten. Dakiguna da 1656. urtean Urnieta oraindik kopuru hori ordaintzen ari zela.

Horrenbestez, ofizialki, 1615eko uztailaren 12an eman zion Filipe III.ak hiribildu izaera Urnietari. Oinarrizko eta ezinbesteko urratsa izan zen hura, baina ez bakarra, ezta azkena ere. Ikusi dugunez, praktikan, urteak eman zituen salbuespena ordaintzen, eta oraindik eta denbora gehiago behar izan zen Urnietako iraganeko hiru zatiak behin betiko bat egiteko.







1615 - 2015

*Vrnjetako*  
udala



... y Fernani, y de la Alca  
... prouy y hazer la deponi  
... minal Alay Vaza mer  
... en sus Terminos de las y  
... de la de la

